



Ene iratxoekin solasean

(Atzera begirako egunkaria, 1990-1998)

Bixente Serrano Izko

Saio eta Testigantza, 238


978-84-9172-233-5

2021. urtea - 336 or. - 17x24 cm

20,00 €

«Inoiz ez gaude bakarrik, batzuetan uste dugunaren despit. Ez, eta Crusoe ere ez zen inoiz bakarrik egon: bere mamuak izan zituen lagun hasieran, Ortziral gero. Gizakia gizaki denetik, geure baitako solasak izan ditugu, aberatsak oso, askotan, gure baitako hainbat eta hainbat mamu eta iratxorekin etengabe egiten ditugunak. Zertan eskizofreniko izan gabe, logikarekin, adimenarekin, gauzen ikerketen inguruko prisma, ertz, begi zorrotz eta lausoekin zer-begiraturik duten geure baitako iratxo asaldagarri desberdinak ditugu solaskide. Iratxo asaldagarriak, gure lehen bat-bateko begiraden aurrean gauzak etengabe bertze angelu batetik ikustera garamatzatenak, edo bai behintzat saiatu. Horixe, *Ene iratxoekin solasean* emanaldi hau [...]».

Horrela hasten da Bixente Serrano Izkok prestatu zuen sarrera, 2020ko ekainean utzi gintuen baino lehentxeago idatzia. Liburua urte horretan argitaratzeko asmoa genuen, baina patua bi-dean gurutzatu zen. Urtebeteko atzerapenarekin bada ere, hemen duzu, irakurle, egileak hainbesteko mimoarekin prestatuturiko lana.



Bixente Serrano Izko
(Saratsa, 1948. Iruñea, 2020)

Saiakeran, *Navarra-Euskadi, un debate popular que urge* (Hordago, 1981), *Beldurra bera zaldi. Uhalik gabeko askatasuna* (Pamiela, 2002), haren gaztelaniazko bertsioa *A lomos del miedo. Libertad sin épica* (Pamiela 2011), *Bakezale gerlari horiek* (Pamiela, 2004), *Jauzika* (Pamiela, 2010).

Ipuingintzan, *Onkoteak* (Pamiela, 1987).

Historia arloan: *Nafarroa. Historiaren hariak* (Euskal Kultur Elkargoa, 2005); haren gaztelaniazko bertsioa, *Navarra. Las tramas de la historia* (Euskal Kultur Elkargoa, 2006).

Artikulugintzan, 1980ko hamarkadako *Korrok* aldizkari literarioan hasi zen eta, ondoren, zutabegile gisa, honako hedabideotan: *Euskaldunon Egunkaria*, *Berria*, *Euskalerrria irratia*, *Hala bedi irratia* eta *Argia*.

